



PRENTSA OHARRA - NOTA DE PRENSA

LAB Superberriak-en lanpostuak defendatzeko borroka egiteko prest

Superberriak-eko zuzendaritzak langile guztientzako eta denda guztientzako EEE-a jakinarazi du

Joan den abuztuaren 30ean, Superberriak-eko zuzendaritzak premiazko bilera bat egiteko deia egin zigun. Bilera horretan, langile guztientzako enplegu-erregulazioko espedientea eta denda guztien itxiera jakinarazi zizkiguten.

Enpresak formalki irailaren 7an kontsulta-aldia hasiko dela jakinarazten digu; izan ere, bere asmoa da Superberriak SLko dendetako langile guztientzat, Amurrioko, Laudio, Ugaoko eta Bilboko Alde Zaharreko BM Shop dendetako 70 langileentzat, enplegu-erregulazioko espedientea aurkeztea. Lau denda horiez gain, Roxima 2020 S.L. enpresarentzako, hau da, Barakaldoko BM Shop dendarentzako eta Grupo Basele S.L. enpresarentzako enplegu-erregulazioko espedientearen berri ere eman ziguten.

Beraz, asteazken honetan, hilak 7, hasiko da kontsulta-aldia, eta bertan, Superberriak-eko zuzendaritzak enpresaren egoerari eta enplegu-erregulazioko espedienteari buruzko hainbat agiri eman beharko dizkie langileen ordezkariak.

Ez dugu ulertzen hain oldarkor eta presazko erabaki hau; izan ere, joan den uztailaren bukaeran, bi aldeek bilera eta negoziazioak adostu genituen irailaren erdialderako edo amaierarako; eta bestetik urtebete eta hilabete gutxi pasa dira, Superberriak-eko zuzendaritzak BM taldera bere denda guztiak frankizia gisa aldatu zituenetik.

LAB Superberriak-eko ordezkari guztiekin eta langile guztiekin lanean hasi da, prozesu honi ahalik eta modu egokienean erantzuteko eta aurre egiteko.

Goiz da xehetasun gehiago emateko, baina argi dago ez dugula etsiko erabaki horren aurrean, eta baliabide, mekanismo eta ekimen sindikal guztiak martxan jarriko ditugu, lanpostuak defendatzeko eta enplegu-erregulazioko espedientea geldiarazteko.

Laudion, 2022ko Irailaren 5ean



PRENTSA OHARRA - NOTA DE PRENSA

LAB dispuesto a luchar por defender los puestos de trabajo de Superberriak
**La dirección de Superberriak comunica un ERE de extinción
para toda la plantilla y todas las tiendas**

El pasado día 30 de Agosto la dirección de Superberriak nos emplazó a una reunión urgente, en la que se se nos comunico un ERE de extinción para la totalidad de la plantilla y el cierre de todas las tiendas.

La empresa nos comunico formalmente el inicio de el periodo de consultas para el día 7 de Septiembre, ya que su intención es presentar un ERE de extinción para toda la plantilla de las tiendas de Superberriak S.L., es decir para los y las 70 trabajadoras de las tiendas BM Shop de Amurrio, Laudio, Ugao y Casco viejo de Bilbao. Además de estas cuatro tiendas, se nos informo también del ERE de extinción para Roxima 2020 S.L., es decir para la tienda BM Shop de Baracaldo, así como para el Grupo Basele S.L.

Por tanto, este miércoles día 7, se iniciara el periodo de consultas donde la dirección de Superberriak deberá de entregar a las representantes de los y las trabajadoras diversa documentación sobre la situación de la empresa y sobre el ERE de extinción.

No entendemos esta decisión tan agresiva y precipitada, ya que a finales del pasado mes de julio las partes nos emplazamos a unas reuniones y negociaciones para mediados o finales de este septiembre; además hace escasamente un año y pocos meses que la dirección de Superberriak realizo el cambio como franquicia de todas sus tiendas al grupo BM.

Desde LAB hemos empezado trabajar junto con todas las delegadas y toda la plantilla de Superberriak para dar respuesta y afrontar este proceso lo mas adecuadamente posible.

Es pronto para dar mas detalles, pero lo que esta claro es que no nos vamos a resignar ante esta decisión, y vamos a poner en marcha todos los recursos, mecanismos y acciones sindicales como jurídicas posibles para defender los puestos de trabajo y poder paralizar este ERE de extinción.

En Laudio, a 5 de septiembre de 2022